

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2556

AGINDUA, 2013ko maiatzaren 14koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, «Sormen Lantegiak» programaren barruan 2013. urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak ezartzen duenez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari dagozkio arte eta kultura mailako jardunekin eta horien hedapenarekin loturiko eginkizunak. Eskumen horiek Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari esleitzen dizkio 2013ko apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duenak.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren iritziz, lerro espezifiko bat abiarazi behar da, hain zuzen ere kultura-edukiak ekoizteko formetan, egituretan eta eran berrikuntza sustatzeko, betiere oinarri hartuta sormena, ikerketa, esperimentazioa eta diziplina-arteko elkarrekintzaren sustapena. Zehazki, berrikuntza bultzatzea da helburua bai ikuspegi artistiko hutsetik, bai ekoizpenaren kudeaketaren ikuspegitik, betiere talentu eta sormen-jardun berriak sustatze aldera. Era horretan, kultura-edukiak sortzeko egiturak berritu, eta artea egiteko era berriak azaleratuko dira, era bereizgarriak, eta, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko arte-sarea aberastu eta sendotuko da. Labur esanda, diru-laguntzak emateko deialdi honen xedea da arte-berrikuntzan espezializatutako zentroak sustatzea eta berrikuntza, diziplinartekotasuna eta alde anitzeko elkarrizketa oinarri dituen sormen- eta ekoizpen-eremu bat bultzatzea, honako hauek abiaburu hartuta: norbanakoaren eta/edo kolektiboaren sormena; trebetasunak eta talentua; ideia eta potentzialtasunen transmisioa; eta ekonomia eta enplegua elikatzen dituzten adierazpenen eta produktuen sormena.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da «Sormen Lantegiak» programaren diru-laguntzak arautu eta 2013. urteko deialdia egitea. Diru-laguntza horien bidez, arte- eta kultura-proposamenak garatzen lagundu nahi da, zehazki ikerketa, esperimentazioa, elkarrizketa eta diziplina artistiko eta sozialen arteko elkarrekintza tresna hartuta berrikuntza eta singularitasuna sustatzen duten arte- eta kultura-proposamenak.

2.– Arte- eta kultura-proposamen horiek honako diziplina hauetakoren bati lotuta egon beharko dute: ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, dantza, literatura, musika, antzerkia, zirkua, magia edo bertsolaritza.

2. artikulua.– Modalitateak eta diru-baliabideak.

1.– Agindu honek honako laguntza-modalitate hauek jasotzen ditu:

a) II. kapituluan eskatzen diren baldintzak eta ezarritako eran betetzen dituzten sormen guneen jarduera-programetara bideratutako diru-laguntzak (Sorgune modalitatea).

b) III. kapituluan eskatzen diren baldintzak eta ezarritako eran betetzen dituzten proiektu eta prototipo kulturalak diseinatzen zuzendutako ikerketa-proposamenetara bideratutako diru-laguntzak (Ikertu modalitatea).

c) IV. kapituluan eskatzen diren baldintzak eta ezarritako eran betetzen dituzten kultur proiektuak egitera bideratutako diru-laguntzak (Arragoa modalitatea).

2.– Diru-laguntza horietarako, guztira, milioi bat eta hogeita mila (1.020.000) euro erabiliko dira.

3.– Diru-kopuru osoa honela banatuko da laguntza-modalitateen artean:

a) Sorgune modalitatea: bostehun eta hirurogei mila (560.000) euro.

b) Ikertu modalitatea: hirurogei mila (60.000) euro.

c) Arragoa modalitatea: laurehun mila (400.000) euro.

3. artikulua.– Pertsona edo erakunde onuradunak.

1.– Agindu hau argitaratzen den egunean, hurrengo kapituluetan laguntza-modalitate bakoitzarentzat ezartzen diren baldintzak bete eta berezko pertsonalitate juridikoa duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak eskatu ahal izango dituzte deialdi honetako diru-laguntzak. Beraz, ezingo dituzte eskatu pertsona fisiko edo juridikoek osatutako pertsonalitate gabeko elkarketek.

2.– Ez zaie laguntzarik emango beren kapital sozialean, fundazio-ondarean edota gobernu-, administrazio- edo zuzendaritza-organoetan partaidetza handiena administrazio publiko edo instituzional batena edo sektore publikoko entitate batena edo finantza- edo kreditu-entitate batena duten entitate pribatuen eskabideei.

3.– Ezingo dute deialdi honetako diru-laguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik dutenek, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek ere. Halaber, ezingo dute diru-laguntzarik eskatu sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalik duten erakundeek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko apirilaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren indarrez.

4.– Agindu honen bidez ematen diren laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa da zerga-betebeharrak egunean izatea, baita Gizarte Segurantzakoak ere.

Deialdi honen organo kudeatzaileak egiaztatuko du, automatikoki, behar hainbat aldiz, diru-laguntza eskatu duten pertsonak Gizarte Segurantzarekiko baldintzak betetzen dituztela, eta horretarako ez du pertsona horien oniritzia behar, halaxe xedatzen du-eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak.

5.– Pertsona onuradunei diru-laguntzak ematea eta, hala dagokionean, horien ordainketa, baldintzaturik geratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak ematen dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan dirua itzultzeko edo zehapenen bat ezartzeko espediente hasi baldin bada eta oraindik izapideak amaitu gabe baldin badaude, prozedura hori burutu arte. Gorabehera horren berri eman behar da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

4. artikulua.– Tramitazio elektronikoa.

1.– Pertsona eta erakunde interesdunek bide elektronikoak erabili ahal izango dituzte deialdi honetako izapideak eskatzeko, kontsultatzeko eta bideratzeko.

2.– Tramitazio elektronikoa honako lege-arau hauetan araututa dago: 2012ko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua, Administrazio Elektronikoa arautzen duena eta e-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– ezartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena.

3.– Eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak, bai bide presentziala erabiliz bai bide elektronikoa erabiliz, nola tramitatu behar diren azaltzen dituzten argibideak euskadi.net-en honako helbide hauetan daude ikusgai:

- Sorgunemodalitatea: https://www.euskadi.net/dirug_laguntza/-/2013/sl_sorgune/eu/
- Ikertu modalitatea: https://www.euskadi.net/dirug_laguntza/-/2013/sl_ikertu/eu/
- Arragoamodalitatea: https://www.euskadi.net/dirug_laguntza/-/2013/sl_arragoa/eu/

4.– Eskabidea egiteko eta dokumentazioa aurkezteko bide horietako bat erabiliz gero –presenziala edo elektronikoa–, horrek ez du esan nahi bidez aldatu ezin denik prozeduraren ondorengo izapideetan, alegia, edonoz aldatu daiteke bidea, halaxe jasotzen du-eta 21/2012 Dekretuak.

Eskabidearen ondoko izapideak, bide elektronikoa erabiliz, hemen egin daitezke:

<http://www.euskadi.net/misgestiones>.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Agindu honen babesean ematen diren diru-laguntzak eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2.– Eskabideak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari zuzenduko zaizkio eta, deialdiko eranskinetako dokumentazioarekin batera eta behar bezala eskaera-orri normalizatua bete ondoren, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko dagokion lurralde zerbitzuan aurkeztu ahalko dira zuzenean bertatik bertara edo 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein bidetatik (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Eskaera-orria, modalitate bakoitzean eskatzen diren formularioekin batera, euskadi.net gunean eskura daitezke, agindu honetako 5. 3 artikuluan adierazitako helbideetan.

Eskabideak bide elektronikoa erabiliz ere aurkeztu ahalko dira, euskadi-net guneko aipaturiko helbideetan.

3.– Pertsona eta erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskaera, atxikitako dokumentazioarekin batera. Halaber, pertsona edo erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabili ahal izango da prozedura osoan, Euskararen Erabilpena Arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duen moduan.

4.– Eskaerarekin batera, deialdi honetako modalitate bakoitzerako datozen kapituluetan adierazitako dokumentuak aurkeztuko dira.

Aurkeztuko diren dokumentu elektronikoak, erabilitako bidea –presentziala edo elektronikoa– donolakoa dela ere, ondorengo ezaugarriak izan beharko dituzte:

- a) Deskargatzeko ereduak erabiliko dira holakoak daudenean, eta ahal bada ereduaren formatuan aurkeztuko dira.
- b) Bestelako dokumentazioa aurkeztuko da ahal bada PDF formatuan.
- c) Dokumentazio elektroniko guztiaren gehienezko tamaina 30 Mb izango da.
- d) Katalogoak web helbide baten bidez aurkeztu ahal izango dira.

5.– Eskabideak aurkeztearekin batera, eskatzaileak aukera izango du baimena emateko laguntzak kudeatzen dituen organoari dokumentazioaren zati bat ofizioz eskuratu edo egiaztatu dezan, bai bide presentziala erabiltzen bada, bai bide telematikoa aukeratzen bada, Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen eskumenen kalterik gabe.

6.– Laguntza eskatzen duen pertsona edo erakundea erregistratu gabe badago Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan, edota Erregistroan dauden bere bankuko datuak aldatu nahi baditu, Eusko Jaurlaritzako hirugarrenaren altari buruzko inprimakia aurkeztu beharko du eskaera-orriarekin batera.

7.– Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartu direla adierazten du.

6. artikulua.– Erantzukizunpeko adierazpenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak ezartzen duenaren arabera (1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko dira honako betebeharrak hauek:

- Xede bera duten eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuei eskatutako eta, hala badagokio, haietatik jasotako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea.

- Aurreko bi ekitaldi fiskaletan eta aurtengoan minimis arauaren mendeko laguntzarik jaso den jakinaraztea.

- Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez izatea zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik.

- Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adieraztea, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak konplitzen dituela adieraztea.

7. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honen bidez emango diren diru-laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

8. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun baliaduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

9. artikulua.– Diru-laguntzak emateko prozedura.

1.– Deialdia ebazteko prozedura lehiaketa izango da, modalitate bakoitzean ezartzen denaren arabera. Diru-laguntzen proposamena eta ebazpena nahitaez lotuko dira proiektu bakoitzean izendatutako diru-baliabideetara eta ezarritako mugetara.

2.– Proiektu-proposamenik ez dagoelako edo proiektuek gutxieneko kalitatea ez dutelako modalitateetako bati dagokion zuzkidura agortzen ez bada, Balorazio Batzordeak gainerako kopurua beste modalitateetako proiektuetara bideratuko du, baldin eta horiek jasoko dituen modalitatea oraindik ebatzi gabe badago eta kalitate-eta bideragarritasun-betekizun egokiak dituzten proiektuei laguntzeko erabiltzen badira. Gorabehera horren berri eman beharko da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

3.– Modalitateetako edozeinetan egon litekeen soberako kopurua nola erabili erabakitzeke, agindu honetako 2.3 artikuluan ezarritako hurrenkerari erreparatuko zaio, alegia, jatorrizko modalitatea edozein dela kopuru oso-oso, lehenik eta behin, Sorgune modalitatera bideratuko da; modalitate hori jada ebatzita badago edo aurreko atalean azaldutakoaren arabera dagokion zuzkidura agortu gabe badago, orduan Ikertu modalitatera; horrela, Arragoa modalitatea zerrendako azkena izango da beste modalitateetako kopuruak jasotzen.

10. artikulua.– Balorazio Batzordea.

1.– Deialdi honetara aurkeztutako eskabideak aztertzeke eta ebaluatzeke, Balorazio Batzorde bakar bat eratuko da. Hauek izango dira kideak:

– Batzordeburua: Kultura Sustatzeko zuzendaria edo horrek izendatutako pertsona bat.

– Bokalak: agindu honen gaien adituak diren gizon-emakumeen artean Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak izendatutako 3tik 5era arteko bokal.

– Idazkaria: Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari bat izango da, zuzendariak izendatua. Hitza izango du baina botorik ez.

Era berean, gai zehatzak aztertzeke Balorazio Batzordearen bileretan parte har dezakete bertaratuen gehiengoak onartzen dituen eta jorratu beharreko gaiari buruz jantzita dauden pertsona guztiek, eta hitz egin ere bai, baina botorik ezin izango dute eman.

2.– Balorazio Batzordean izendatutako aditu-profesionalek zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, honakoak frogatzeko: Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezartzen diren abstentziorako kausaren batean ez daudela; isilpekotasuna bermatuko dutela; eskatzaileek aurkeztutako agiriak proiektuak baloratzeko baino ez direla erabiliko, eta hori deialdi honetan ezarritako irizpideekin bat etorritik egin dela; eta, ebazpen-proposamena eman ondoren, espedienteetako agiri guztiak deialdia kudeatzen duen organoari itzuliko zaizkiola.

3.– Balorazio Batzordeko kideak izendatzerakoan Gizonen eta Emakumeen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluan xedatutakoa beteko da.

4.– Balorazio Batzordearen behin betiko osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bidez jakinaraziko da, Batzordea eratu aurretik, interesdunek errefusatzeko duten eskubidea erabil ahal izan dezaten, legez ezarritako zehaztapen eta baldintzetan.

5.– Batzordeak, diru-laguntza modalitate bakoitzerako ezarritako esleipen-irizpideetan oinarrituta, adostasunez ebatzitako ditu Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari aurkeztuko dizkion diru-laguntzak emateko proposamenak.

Proposamen horietan ordezeko onuradunak izendatu ahal izango dira, gerta baitaiteke hautatutakoek diru-laguntza eman zaiela jakinarazi eta hamabost eguneko epean horiei uko egitea. Kasu horretan, ordezekoak jasoko duen diru-laguntzaren zenbatekoa hasieran onuradun izendatu zenari eman zaiona bera izango da. Uko-egileari emandako diru-laguntza ordezekoari dagokiona baino handiagoa bada, muga horretaraino murriztuko da laguntza.

6.– Balorazio Batzordeak behar adina azalpen eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei, eskabi-deak egokiro ebaluatzeko beharrezkoa ikusten duenean.

11. artikulua.– Oinarrizko balorazio-irizpidea.

1.– Agindu honen 25, 31 eta 37 artikuluetan ezarritakoaren arabera, aurreikusitako diru-laguntzen modalitate bakoitzean baloratu beharreko irizpideen artean, Balorazio Batzordeak kontuan hartuko du proiektu bakoitzak proposatzen dituen diziplinen arteko elkarrekintzaren maila eta kalitatea.

2.– Horrela izanda, hurrengo alderdiak hartuko dira aintzat:

a) Proiektuak elkarguneak proposatu behar ditu, kultura-ekonomian, zientzian eta gizartean. Arlo horietara lotutako diziplinak honako hauek izan daitezke:

- Kultura-ekonomia: Eskulangintza, Diseinu grafikoa edo industrial, Gastronomia, Moda, Kultura-ondarea, denbora-pasarako eta komunikaziorako Software elkarreragileak, Robotika eta antzekoak.

- Zientzia aplikatuak: Enpresen administrazioa, Nekazaritza, Arkitektura eta Ingeniaritzak, Bioteknologia, Komunikazio zientziak, Osasun zientziak, Ekonomia, Industria, Ingurumena, Metalurgia, Garraioa eta antzeko beste zientzia aplikatu batzuk.

- Gizarte zientziak: Demografia, Ekologia, Pedagogia, Hirigintza eta antzeko beste gizarte zientzia batzuk.

- Gizarte-lana: Mendetasuna, Ahaldun urritasunak, Gizarte-bazterketa, Tratu txarrak (emakumeak, adingabeak, zaharrak...), Presoak, Adindunak, Indarkeriaren biktimak, Genero-berdintasuna eta antzeko beste gizarte-alor batzuk.

b) Proiektuak elkarguneak proposatu behar ditu, inplikaturako diziplinetako jakintza, teknika, forma edo/eta egituren artean, eta azken emaitza izango da proposamenerako diziplinekin lotutako proiektu, produktu edo prozesuen aplikazio berritzaileak.

12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Agindu honetan jasotako diru-laguntzei buruzko ebazpenak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak emango ditu, Balorazio Batzordearen proposamena ikusi ondoren, eta banaka jakinaraziko dira.

2.– Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, denek horien berri izan dezaten.

3.– Ebazpen horietan ordezeko onuradunak izendatu ahal izango dira, gerta baitaiteke hautatutakoek epearen barruan diru-laguntzei uko egitea, 10. artikuluko 5. idatzi-zatian xedatutakoarekin bat.

4.– Modalitate bakoitzean ematen den ebazpenak ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, haren aurka gorako errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta, horrela dago-eta xedatuta azaroaren 26ko 30/19992 Legearen 114 eta 115 artikuluetan.

13. artikulua.– Ebazpena emateko epea eta haren ondorioak.

1.– Agindu honetako diru-laguntzak emateko ebazpenak sei hileko epean jakinaraziko dira, Agindua argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

2.– Ebazteko epea amaituta, interesdunari inolako jakinarazpenik egin ez bazaio, eskabidea errefusatutzat jo daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako ondorioetarako.

14. artikulua.– Jakinarazpenak izapidetze presentzian eta telematikoa.

1.– Izapideak bertaratuta eginez gero, jakinarazpena egindakotzat joko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta kasu bakoitzean ezarritako epea jakinarazpeneko egintza jaso eta biharamunetik hasiko da zenbatzen.

2.– Izapidetze telematikoa kasuan, aldiz, 21/2012 Dekretuan xedaturikoari jarraiki, jakinarazpena egindakotzat joko da pertsona interesdunak edo, kasuan kasu, legezko ordezkariak edo baimenduriko pertsonak jaso duela elektronikoki sinatzen duenean, eta kasu bakoitzean ezarritako epea hark jakinarazpeneko egintza jaso izana elektronikoki sinatzearen biharamunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Jakinarazitako egintza aipatutako Dekretuan aipatzen den helbide elektronikoa interesdunaren edo haren legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren esku jartzen denetik hamar egun naturaleko epea igaro eta gero, interesdunak haren edukia eskuratzen ez badu, jakinarazpena ezetsizat joko da. Horrela, izapidea egindakotzat joko da eta prozedurak aurrera egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak jakinarazita, jakinarazpena ikustea teknikoki edo materialki ezinezkoa izan dela egiaztatzen bada.

15. artikulua.– Bateriaezintasunak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandakoak batera erabil daitezke helburu berbererako, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada edo «minimis» araua urratzen ez bada. Gainfinantzaketarik badago, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion mugaraino.

2.– Hala ere, deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateraezinak izango dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak proiektu eta helburu berberarentzat emandako edozein diru-laguntza izendun eta zuzenekin, edo musika, dantza, ikus-entzunezko, antzerki, ikusizko arte edo liburu eta literatura alorretako diru-laguntzekin. Era berean, bateraezinak izango dira Etxepare Institutuak emandakoekin.

3.– Aurreko atalean aipatutako ez-bateragarritasuna saihesteko asmoz proiektua zatitu, zabaldu edo moldatu egin dela egiaztatzen bada, Balorazio Batzordeak ez du proiektua baloratuko eta deialditik kanpo utziko da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpenaren bidez.

16. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Deialdi honetako diru-laguntzak honela ordainduko dira:

a) Diru-laguntzaren % 75 esleipen-ebazpena eman ondoren eta handik hamabost egun balio-duneko epea igaro ondoren ordainduko da, berariaz uko egiten ez bazaio.

b) Gainerako % 25a, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, diruz lagundutako jarduera gauzatu dela egiaztatu ondoren eta, hala dagokionean, jarduera osoa onartutako aurrekontuaren arabera justifikatu ondoren, modalitate bakoitzean zehaztutako eran.

17.– Justifikazioak egiteko lekua eta modua.

1.– Agindu honen hurrengo kapituluetan zehazten dira diru-laguntza modalitate bakoitzean onuradunek justifikazioak egiteko aurkeztu beharreko agiriak, eta horiek aurkezteko gehienezko epea.

2.– Justifikazioak aurkeztuko dira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko dagokion lurralde zerbitzuan zuzenean edo 30/1992 Legean ezarritako edozein bidetatik (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearena).

Justifikazioak bide elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahalko dira:

<http://www.euskadi.net/misgestiones> gunean.

3.– Justifikazioak, bai bide presentziala erabiliz bai bide elektronikoa erabiliz, nola tramitatu behar diren azaltzen dituzten argibideak [euskadi.net](http://www.euskadi.net)-en honako helbide hauetan daude ikusgai:

- Sorgunemodalitatea: https://www.euskadi.net/dirulaguntza/-/2013/sl_sorgune/eu/
- Ikertu modalitatea: https://www.euskadi.net/dirulaguntza/-/2013/sl_ikertu/eu/
- Arragoamodalitatea: https://www.euskadi.net/dirulaguntza/-/2013/sl_arragoa/eu/

18. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzak jasotzen dituztenek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntza eman dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek berariaz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat emango da.

b) Diru-laguntza eman zaion xede horretarako erabiltzea.

c) Ogasuna eta Finantzak Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari diru-laguntzen fiskalizazio-lanetan behar duten informazio guztia ematea.

d) Diruz lagundutako proiektua deialdirako aurkeztu diren baldintzetan garatzea. Dena den, aldaketak ere egin ahal izango dira, baldin eta aldaketok funtsezkoak ez badira eta ez badute bide-ragarritasun ekonomikoa eragiten. Aldaketa horiek idatziz jakinaraziko zaizkio Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari eta hark, jakinarazpena jasotzen duen egunetik hamabost eguneko epea izango du horiek onartu edo gaitzesteko. Epea inolako jakinarazpenik gabe igaroz gero, aurkeztu den aldaketa onartu dela ulertuko da.

e) Diru-laguntza ematen duen organoari Estatuko nahiz mundu mailako beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuak xede bererako ematen dituzten bestelako laguntza edo diru-laguntzak jasotzen diren jakinaraztea.

f) Onuradunek konpromisoa hartzen dute diruz lagundutako proiektuen informazio, publizitate, sustapen guztietan eta ondorio horretarako erabiltzen den edozein hedabidetan obrak Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntzaz egin direla adierazteko.

g) Agindu honetan diru-laguntza modalitate bakoitzerako ezartzen diren betebeharrak eta baldintzak betetzea, eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako diren laguntza eta diru-laguntzak jaso ahal izateko ezartzen direnak ere.

19. artikulua.– Likidazio-ebazpena.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onesten duen Euskal Herriko Ogasun Orokorreko Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.12 artikuluekin bat etorriz, diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira edo beste administrazio edo entitate publiko zein pribatuetatik beste laguntzarik jaso bada, edo helburu berbererako beste edozein diru-sarrera badago, horrek diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, betiere laguntza arautzen duen xedapenak ezarritako gutxieneko betekizunak gordetzen badira. Horretarako, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak likidazio-ebazpena emango du, emandako diru-zenbatekoak doitzeko.

20. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikulua xedatutakoaren arabera, hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jardueraz bestelakoe-tan erabiltzea.

b) Agindu honetan edo diru-laguntza emateko egintzan adierazitako betebeharrak ez betetzea.

c) Diru-laguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean adierazitako zenbatekoa epearen barruan ez itzultzea (hala badagokio).

d) Xedapen orokorretan nahitaez bete beharreko zatitako beste edozer ez betetzea.

2.– Ez betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren eta abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuaren arabera (hurrenez hurren, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onesten duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua).

II. KAPITULUA

SORGUNE MODALITATEA

21. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketan proiektuak.

1.– Modalitate hau bideratuta dago programa espezifikoak antolatuz eta horretarako behar diren zuzkidura, azpiegitura eta egiturak erabiliz, bai banakako pertsonen bai kolektibo sortzaileei hainbat prozesuri (ekoizpena, prestakuntza edo kulturaren edo artearen alorreko eskuhartzea) ekiteko espazioak, baliabideak eta lankidetzarako laguntza eskaintzen dizkieten sormen-guneek

aurkezten dituzten jarduera-proiektuetara, betiere orientabidetzat hartuta adierazpen artistikoen berrikuntza, talentuak antzematea eta bultzatzea, eta kudeaketa parte hartzailea.

2.– Beren jarduera-proiektuetarako diru-laguntzak jaso ahal izateko, sormen-guneek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Euskal Autonomia Erkidegoko higiezinak izatea.
- Dagokien jarduera egiteko gaitasuna eta egokitasuna egiaztatzea. Horretarako, gutxienez, sorkuntza, ekoizpen edo erakusketarako gune egokiak izan beharko ditu, bai eta jarduerak egiteko behar diren baliabide teknikoak ere.

3.– Agindu honen ondorioetarako, honako hauek ez dira sormen-gunetzat joko eta, hortaz, ezingo dute diru-laguntzarik jaso:

- Plataforma digitalak, nahiz eta haien eskura eduki jarduerak egiteko moduko guneak.
- Nagusiki prestakuntzara bideratutako eskola edo guneak.
- Helburu nagusia turismoa edo merkataritza duten guneak.
- Gizarteratzera bideratutako guneak, non alde artistikoa osagarria edo instrumentala den.
- Helburu bakarra artekaritza kultura duten guneak.

4.– Diru-laguntza jaso ahal izateko, proiektuek 2013. urtean hasiak behar dute izan, eta 2013ko abenduaren 31rako amaituak.

22. artikulua.– Pertsona onuradunak.

1.– Modalitate honetan diru-laguntza jaso ahal izateko, agindu hau argitaratzen den egunean, Euskadiko Autonomia Erkidegoan helbidea edo sozietate-egoitza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa edukita eta edozein dela ere haien eraketa juridikoa, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Agindu honetako 21.1 ezarritakoa betetzen duten sormen-guneak kudeatzeko edo ustiatzeko titulartasuna izatea. Horretarako, honako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu behar dute agiri bidez:

- Higiezinaren jabetza-titulua izatea, eta gunea erabiltzea, soil-soilik sormen-gune moduan.
- Higiezinaren errentaria izatea, horretarako formalizatutako kontratuaren indarrez, eta higiezinaren erabiltzea, soil-soilik, sormen-gune moduan.
- Higiezinaren sormen-gune moduan kudeatzeko eta ustiatzeko eskubidea bere alda lagata izatea, edozein tituluren bidez.

b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea, sormen-gunean egin beharreko jarduera nagusien epigrafean.

2.– Ezingo dituzte modalitate honetako diru-laguntzak eskatu titulartasun publikoa duen sormen-gune bateko zerbitzu-kontratu edo zerbitzu publikoen kudeaketa kontratu baten esleipendun moduan eskatzen dutenek.

23. artikulua.– Eskabidean aurkeztu beharreko agiriak.

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Nortasun Agiri Nazionala, pasaportearen edo antzeko agiriren bat, eskatzailea pertsona fisikoa bada.

b) Sortze-eskritura eta estatutuak, dagozkion erregistro publikoetan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, legezko ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren kopia, ahalordetze agiria edo dagokion organoak egindako egiaztatzea, eta, eskatzailea pertsona juridikoa bada, identifikazio fiskalaren zenbakiaren txartela.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafean alta emanda egotearen egiaztatzea.

d) Proiektu berarentzat eskatu eta lortu diren beste laguntzen gaineko adierazpena eta haien zenbatekoa, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera.

e) Aurreko bi ekitaldi fiskaletan eta aurtengoan jasotako minimis motako beste edozein laguntzari buruzko adierazpena, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera.

f) Hirugarrenaren altari buruzko agiria, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera.

g) Sormen-gunearen kudeaketaren edo ustiapenaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria, 22.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

h) Sormen-guneko baliabide eta azpiegiturei buruzko informazioa, 21.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

i) Proposamenaren laburpen-fitxa, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera. Bide presentziala aukeratuz gero, gainera formatu digitalean aurkeztu beharko da.

j) Proposamena azaltzen duen txostena, beraren interesa eta balioa zehazten dituen, bai eta nola garatuko den argitzen duena ere. Gainera, proposamena zuzen baloratzeko behar diren alderdiak azalduko ditu, agindu honetako 25. artikuluan 2 eta 3 puntuetan ezarritako irizpideekin bat. Bide presentziala aukeratuz gero, gainera formatu digitalean aurkeztu beharko da.

k) Sormen-gunearen ibilbideari buruzko dokumentazioa. Bertan, 2012 urtean zehar, gutxienez, jaso diren proiektuen eta gauzatu diren jardueren informazioa emango da. Bide presentziala aukeratuz gero, gainera formatu digitalean aurkeztu beharko da.

l) Proiektuaren aurrekontua, partidaka banakatua eta xehatua, aurreikusitako gastu-sarrerak jasoko dituen, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera. Bide presentziala aukeratuz gero, gainera formatu digitalean aurkeztu beharko da.

m) Aurreikusitako egutegia, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera.

24. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoak eta mugak.

1.– Modalitate honetan proiektu bakoitzari emandako diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa hirurogei mila (60.000) eurokoa izango da, eta ezingo du gairatutako gastu-aurrekontuaren % 75.

2.– Balio Erantsiaren Gaineko zergari dagokion zenbateko kengarria ezingo da egindako gastutzat hartu.

3.– Guneko jardueren ondorioz sorturiko honako gastu hauek diru-laguntza jasotzeko modukoak izango dira, aurkeztutako jarduera-proiektuaren barruan:

- Artista eta kolaboratzaileen ordainsariak.
- Egoitza gastuak.
- Prestakuntza gastuak.
- Sustapena eta komunikazioa.
- Jarduerak eskatzen dituzten hornidurak.
- Justifikatutako beste gastu batzuk.

4.– Era berean, honako ohiko gastu hauek ez dute gaindituko aurrekontuaren kostu orokorraren % 60:

- Zentroa alokatzeko gastuak.
- Kontsumoak: argia, ura, telefonoa, gasa eta Internet.
- Administrazio, kudeaketa eta zuzendaritza-langileen nominak.
- Joan-etorrien, ostatuen eta dieten gastuak.
- Gunerako materialak eta ondasun suntsikorrak.
- Garbiketa gastuak.
- Beste gastu ohiko batzuk.

5.– Halaber, aurrekontuan sartu ahal izango dira gunea egokitzeko gastuak eta bertarako ogasun eta ekipo iraunkorrak erosteko gastuak, beti ere kontzeptu horiei dagokien guztizko kopurua aurrekontu osoaren % 10 gainditzen ez badu. Sartzen diren gastuak, gainera, proiektua 2013ko ekitaldian garatzeko behar-beharrezkoak direla justifikatu beharko da beti.

6.– Inolaz ere ez dira aurrekontuan sartuko, eta ez dute laguntzarik jasoko, sormen-gunean sartuta dauden proiektuen ekoizpenari loturiko gastuak.

25. artikulua.– Prozedura, hautapena eta kuantifikazio-irizpideak.

1.– Modalitate honen kargura emango diren diru-laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez esleituko dira. Beraz, diru-laguntza jasotzeko ezarritako gehienezko muga errespetatuz eta finkatutako irizpideak erabiliz, onuradun kopuru bat hautatuko da, hain zuzen ere, proiektuen kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatuko duen kopurua, betiere proiektuen dimentsioari begira.

2.– Balorazio Batzordeak jasotako eskabideak aztertuko ditu eta jarraian aipatzen diren irizpide eta baremoen arabera ebaluatuko ditu zehazten diren alderdiak. Lehenik, aurkeztutako proiektuak hurrengo irizpideen arabera baloratuko dira:

a) Sormen-gunearen kultur interesa. Kontuan hartuko dira bertako proiektuen esperientzia, bereizgarritasuna eta kalitatea, bai eta zenbateraino sustatzen den ere kulturartekotasuna, alegia, kultur molde eta praktika ezberdinen arteko elkarrikeria, bai genero-berdintasunaren integrazioa eta informazio eta komunikazio teknologien erabilera ere. Gehienez 20 puntu esleituko dira.

b) Sormen-gunearen interes publikoa. Kontuan hartuko dira sormen-guneak ezarritako sarbideari, erabilerari eta parte hartzeari dagozkien baldintzak, bai eta onuradun erabiltzaileen dibertsitatea eta kopurua, eta eskaintzen dituen zerbitzuak eta gunearen garrantzi publikoa ere. Gehienez 20 puntu esleituko dira.

c) Proiektuaren bideragarritasuna edo egingarritasuna. Kontuan hartuko dira aurrekontuaren egokitasuna, proiektuan erabilitako enpresa-baliabideak eta kalitate-prezio harremana aproposa izatea. Gehienez 20 puntu emango dira.

3.– Aurreko hiru irizpideen balorazioan gutxienez 40 puntu lortzen ez duten proiektuak baztertu egingo dira. Beste proiektuak baloratuak izango dira, bigarrenik, hurrengo irizpideen arabera:

a) Eskatzailearen historiala edo ibilbidea. Kontuan hartuko da, bereziki, modalitate honen alorreko proiektu berritzaileekin izandako harremana. Gehienez 15 puntu esleituko dira.

b) Sormen-guneak ingurumariarekin duen lotura. Kontuan hartuko da guneak ingurune hurbi-lenarekin duen harremana, eta zein neurritan sustatzen dituen tokiko gizartearen kohesioa eta bizikidetzeta, eta bultzatzen duen bertako arte jarduera. Gehienez 15 puntu esleituko dira.

c) Agindu honetako 11. artikulua araberako sormen-guneak jasoko dituen proiektuek planteaturiko diziplinarteko elkarguneen sakontasun eta kalitate maila. Gehienez 10 puntu esleituko dira.

4.– Artikulu honetan ezarritako balorazio-baremoaren puntuazio totaletik gutxienez 65 puntu lortzen ez duten proiektuak baztertu egingo dira, eta ezingo dira sartu aukeratutako artean.

5.– Hautatutako proiektu bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, 2.3 artikuluan adierazitako diru-zuzkidura orokorra banatuko da onuradunek balorazio-irizpideei jarraikiz loturiko puntuazioaren arabera, eta laguntzaren kopurua ez da inoiz izango eskatutakoa baino gehiago, ez hirurogei mila (60.000) euro baino gehiago, ezta proiektuaren kostearen % 75 baino gehiago ere; gainera, diruz lagundutako proiektu-kopuruak eta horiei emandako diru-zenbatekoek beti bete beharko dute artikulu honen 1. idatzi-zatian xedatutakoa.

26. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

Modalitate honetako diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsona/entitate onuradunek, lagundutako jarduera bukatu eta hiru hileko epean, eta betiere 2014ko martxoaren 31 baino lehen, honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, bide presentzialetik edo elektronikotik:

a) Lagundutako jarduerari buruzko txosten zehatza, exekuzioa, betetze-maila eta ebaluazioa azaltzen dituenak.

b) Diruz lagundutako jardueraren behin betiko exekuzio-aurrekontua (gastuak eta diru-sarrerak), ahalik eta zehatzena, zinpeko aitortzen bidez, eskaerarekin onartutako aurrekontuaren formula-rioren arabera.

Diru-sarreraren atalean honako datu hauek zehaztu beharko dira, besteak beste:

- Entitate onuradunaren behin betiko ekarpena.

- Beste administrazio edo entitateen ekarpenak, publikoenak eta pribatuenak. Entitate onuradunak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emandakoaz gain bestelako diru-laguntzarik jaso ezean, hori horrela dela adierazten duen zinpeko aitortzen ere aurkeztu beharko da.

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emandako diru-laguntza.

Ez da onartuko aldaketa nabarmenik egitea behin betiko exekuzio-aurrekontuaren gastuko konzeptuetan, onartutako aurrekontuarekiko, baldin eta tartean erabat justifikatutako arrazoirik ez badago eta, betiere, 24. artikuluan ezarritako mugak gainditzen ez badira.

c) Diruz lagundutako programa edo jarduera gauzatzeak sorturiko gastuak justifikatzen duten dokumentu guztien zerrenda, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera. Ez dira tiketak onartuko eta Balio Erantsiaren Gaineko zergari dagokion zenbateko kengarria ezingo da egindako gastutzat hartu.

d) Emandako diru-laguntzaren adinako gastuak, gutxienez, justifikatzen dituzten egiaztagiri eta fakturak. Hala ere, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak laginketa tekniken bidez aukeratuko ditu, artikuluko honetako lehenengo paragrafoan ezarritako epearen barruan, aurrekontu osoa justifikatuko duten egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzten pertsona onuradunak.

e) Katalogo, egitarau, iragarpen-kartel, argazki eta gainontzeko material grafiko edo soinuzkoaren hizkuntz bertsio desberdinetako aleak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren babesa espresuki adierazita dutelarik.

III. KAPITULUA

IKERTU MODALITATEA

27. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak.

1.– Modalitate hau sormenera bideratua dago, kultur produktuak egiteko alde aurreko ezinbesteko pausu gisa ulertuta, eta lagunduko diren ikerketa-proposamenen xedea izango da proiektu eta prototipoen aurretiko diseinua, non eta ideia, hipotesi edo hasierako kontzeptu batetik abiatuta beraren bidezkotasuna, interesa, originaltasuna edo egokitasuna ikertu nahi diren, bai eta beraren bideragarritasuna ere, produktu edo prozesu artistiko jakin bat, gerora gara daitekeena, bilakatzeko.

2.– Diru-laguntza jaso ahal izateko, proposamenek 2013. urtean hasiak behar dute izan, eta 2013ko abenduaren 31rako amaituak.

3.– Halaber, ez dute laguntzarik jasoko, modalitate honetako helburua ez betetzeagatik, publikoaren artean banatuak, erakutsiak eta kontsumituak edo partaidetuak izateko helburua duten proposamenek.

28. artikulua.– Pertsona onuradunak.

1.– Modalitate honetako diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako pertsona fisiko guztiek, edo agindu hau argitaratzen den egunean Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean gutxienez urte bat erroldatua daramatenek. Hori egiaztatzeko, nortasun-agiria edo erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharko dute, hurrenez hurren.

2.– Aurrekoa dela eta, pertsona juridikoek ezingo dute modalitate honetako diru-laguntzarik jaso.

29. artikulua.– Eskabidean aurkeztu beharreko agiriak.

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Nortasun agiri nazionala, pasaportearen edo antzeko agiri bat.

b) Erroldatze-ziurtagiria, agindu hau argitaratzen den egunean Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean gutxienez urte bat erroldatua daramala egiaztatzen duena.

c) Proiektu berarentzat eskatu eta lortu diren beste laguntzen gaineko adierazpena eta haien zenbatekoa, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera.

d) Hirugarrenaren altari buruzko agiria, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera.

e) Proposamenaren laburpen-fitxa, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera. Bide prezentziala aukeratuz gero, gainera formatu digitalean aurkeztu beharko da.

f) Proposamena azaltzen duen txostena, beraren interesa eta balioa zehazten dituen, bai eta nola garatuko den argitzen duena ere. Gainera, proposamena zuzen baloratzeko behar diren alderdiak azalduko ditu, agindu honetako 31. artikuluan 2 eta 3 puntuetan ezarritako irizpideekin bat. Bide prezentziala aukeratuz gero, gainera formatu digitalean aurkeztu beharko da.

g) Aurreikusitako egutegia, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera.

30. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoak eta mugak.

1.– Modalitate honetara bideratutako diru-hornidura hiru mila (3.000) euroko hogeitazatan banatuko da.

2.– Modalitate honetan aurreikusitako diru-laguntzen kopurua handitu egin daiteke, baldin eta, agindu honen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, beste modalitatearen batean soberan geratutako zenbatekoak modalitate honetara bideratzen badira. Nolanahi ere, handitze hori egingo da baldin eta gehitu beharreko zenbatekoa nahikoa bada onartutako diru-laguntzak aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekora iritsi daitezen eta, betiere, 9. artikuluan ezarritako beste baldintzak betetzen badira.

3.– Modalitate honetako eskatzaile bakoitzak proiektu bat baino gehiago aurkez ditzake, baina onuradun bakoitzari proiektu bakarragatik baino ez zaio diru-laguntza emango.

31. artikulua.– Prozedura eta hautapen-irizpideak.

1.– Modalitate honen kargura emango diren diru-laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez esleituko dira. Beraz, diru-laguntza jasotzeko ezarritako gehienezko muga errespetatuz eta finkatutako irizpideak erabiliz, aurkezten diren eskabideak konparatu eta onuradun kopuru bat hautatuko da, hain zuzen ere, hurrenkera bat ezartzeko eta baloraziorik onena lortu dutenei laguntza emateko.

2.– Balorazio Batzordeak jasotako eskabideak aztertuko ditu eta jarraian aipatzen diren irizpide eta baremoen arabera ebaluatuko ditu zehazten diren alderdiak. Lehenik, aurkeztutako proiektuak hurrengo irizpideen arabera baloratuko dira:

a) Proiektuaren kalitatea eta interesa. Alderdi horiek baloratuko dira proiektuaren osotasunean, eta, era berean kontuan hartuko dira, zenbateraino sustatzen den kulturartekotasuna, alegia, kultur molde eta praktika ezberdinen arteko elkarrizketa, bai genero-berdintasunaren integrazioa eta informazio eta komunikazio teknologien erabilera ere. Gehienez 25 puntu esleituko dira.

b) Proiektuaren gaitasun berritzailea. Kontuan hartuko da proiektuak sortzen dituen esperimenez abiatzen diren eduki berri, original eta bereziak. Gehienez 35 puntu esleituko dira.

3.– Aurreko bi irizpideen balorazioan gutxienez 40 puntu lortzen ez duten proiektuak baztertu egingo dira. Beste proiektuak baloratuak izango dira, bigarrenik, hurrengo irizpideen arabera:

a) Agindu honen 11. artikulua arabera proposatzen den diziplinarteko elkarrekintzaren sakon- tasuna eta kalitatea. Gehienez 30 puntu esleituko dira.

b) Eskatzailearen historiala edo ibilbidea. Kontuan hartuko da, bereziki, modalitate honen alo- rreko proiektu berritzaileekin izandako harremana. Gehienez 10 puntu esleituko dira.

4.– Artikulu honetan ezarritako balorazio-baremoaren puntuazio totaletik gutxienez 65 puntu lor- tzen ez duten proiektuak baztertu egingo dira, eta ezingo dira sartu aukeratutakoan artean.

32. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

Modalitate honetako diru-laguntzen onuradunek, lagundutako jarduera bukatu eta hiru hileko epean eta betiere 2014ko martxoaren 31 baino lehen, txosten egiaztatzaile bat aurkeztu beharko dute, bai paperean bai egindako lanaren komunikazioa erraztu dezaketen ikusizko elementuz hor- nituriko beste edozein euskarritan, non zehatz-mehatz azalduko den egindako diseinua, ikerlana edo prozesua, bai eta lortutako emaitzak ere, laguntzaren helburua benetan betetzen dela baieztatzeko.

IV. KAPITULUA

ARRAGOA MODALITATEA

33. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak.

1.– Modalitate hau bideratuta dago ikerketarekin, berrikuntzarekin eta garaikidetasun artisti- koarekin loturiko kultur proiektuetara, –seriean produzitzeko modukoak izan edo ez, baina betiere tankeraren eta edukiaren egituragatik horrelakotzat ezagutzeko modukoak–, publikoaren artean banatuak, erakutsiak eta kontsumituak edo partaidetuak izateko helburua dutenak.

2.– Diru-laguntza jaso ahal izateko, proiektuek 2013. urtean hasiak behar dute izan, eta 2014ko martxoaren 31rako, gehienez ere, amaituak.

34. artikulua.– Pertsona onuradunak.

1.– Modalitate honetako diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte agindu hau argitaratzen den egunean Euskal Autonomia Erkidegoan helbidea edo sozietate-egoitza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek, baldin eta proiektuak elkargunea proposatzen duen diziplinetako jardueraren bati buruzko jarduera ekonomikoen zergan dagokion epigrafean alta emanda badaude.

2.– Modalitate honetako eskatzaile bakoitzak proiektu bat baino gehiago aurkez ditzake, baina onuradun bakoitzari proiektu bakarragatik baino ez zaio diru-laguntza emango.

35. artikulua.– Eskabidean aurkeztu beharreko agiriak.

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte edo antzeko agiriren bat, eskatzailea pertsona fisikoa bada.

b) Sortze-eskritura eta estatutuak, dagozkion erregistro publikoetan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, legezko ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren kopia, ahalordetze

agiria edo dagokion organoak egindako egiaztagiria, eta, eskatzailea pertsona juridikoa bada, identifikazio fiskalaren zenbakiaren txartela.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafean alta emanda egotearen egiaztagiria.

d) Proiektu berarentzat eskatu eta lortu diren beste laguntzen gaineko adierazpena eta haien zenbatekoa, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera.

e) Aurreko hiru ekitaldi fiskaletan jasotako minimis motako beste edozein laguntzari buruzko adierazpena, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera.

f) Hirugarrenaren altari buruzko agiria, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera.

g) Proposamenaren laburpen-fitxa, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera. Bide presentziala aukeratuz gero, gainera formatu digitalean aurkeztu beharko da.

h) Proposamena azaltzen duen txostena, beraren interesa eta balioa zehazten dituen, bai eta nola garatuko den argitzen duena ere. Gainera, proposamena zuzen baloratzeko behar diren alderdiak azalduko ditu, agindu honetako 37. artikulua 2 eta 3 puntuetan artikuluan ezarritako irizpideekin bat. Bide presentziala aukeratuz gero, gainera formatu digitalean aurkeztu beharko da.

i) Proiektuaren aurrekontua, partidaka banakatua eta xehatua, aurreikusitako gastu-sarrerak jasoko dituen, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera. Bide presentziala aukeratuz gero, gainera formatu digitalean aurkeztu beharko da.

j) Aurreikusitako egutegia, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera.

k) Lanaren gaineko jabetza intelektualaren eskubideak izatea. Besterik ezean, eskubideak lagatzeko etorkizuneko kontratuaren baldintzak hitzartuta daudela egiaztatzea.

36. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoak eta mugak.

1.– Modalitate honetan, proiektu bakoitzari emandako diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa hogeita hamabost mila (35.000) euro izango da, eta inoiz ere ezingo da gainditu onartutako gastu-aurrekontuaren % 65.

2.– Balio Erantsiaren Gaineko zergari dagokion zenbateko kengarria ezingo da egindako gastutzat hartu.

3.– Produkzio gastuez gain, diruz lagundu ahal izango dira hurrengo gastu arruntak eta estrukturalak, baina ezingo dute gainditu aurrekontu osoaren % 40a:

- Lokala alokatzeko gastuak.
- Kontsumoak: argia, ura, telefonoa, gasa, Internet.
- Jarduera burutzeko izendatutako administrazio, kudeaketa eta zuzendaritza-langileen nominak.
- Jarduera burutzeko izendatutako pertsonalaren joan-etorrien, ostatuen eta dieten gastuak.
- Ohiko beste gastu batzuk.

4.– Ekintzari lotutako administrarien, kudeatzaileen eta zuzendarien gastuak, gastu arruntetan eta egiturazkoetan sartuta badaude, ezin izango dira izan aurrekontu osoaren % 25etik gorakoak.

5.– Ekoizpen-gastuen barruan sartu ahal izango dira proiektuaren kudeaketa, koordinazio, zuzendaritza edo idazkaritza teknikoko gastuak, bai eta antzeko gastuak ere, betiere aurrekontu osoaren % 25 gainditzen ez badute.

6.– Artikulu honetako 3. eta 5. artikuluetan hurrenez hurren adierazitako gastu arruntak eta egiturazko gastuak, batetik, eta, bestetik, proiektuaren kudeaketa, koordinazio, zuzendaritza eta idazkaritza teknikoko gastuak, denak batuta ezin dira izan 3. paragrafoan ezarritako mugatik gorakoak. Halaber, gastu arrunt eta egiturazkoen artean administrarien, kudeatzaileen eta zuzendarien gastuak sartzen badira, horiek guztiak eta kudeaketa, koordinazio, zuzendaritza edo idazkaritza teknikoko gastuak batuta ezingo dira izan 4. artikuluan ezarritako mugatik gorakoak.

7.– Berariaz baztertzen da inbertsio-gastuak aurrekontuan sartzeko aukera.

37. artikulua.– Prozedura, hautapena eta kuantifikazio-irizpideak.

1.– Modalitate honen kargura emango diren diru-laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez esleituko dira. Beraz, diru-laguntza jasotzeko ezarritako gehienezko muga errespetatuz eta finkatutako irizpideak erabiliz, onuradun kopuru bat hautatuko da, hain zuzen ere proiektuen kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatuko duen kopurua, betiere proiektuen dimentsioari begira.

2.– Balorazio Batzordeak jasotako eskabideak aztertuko ditu eta jarraian aipatzen diren irizpide eta baremoen arabera ebaluatuko ditu zehazten diren alderdiak. Lehenik, aurkeztutako proiektuak hurrengo irizpideen arabera baloratuko dira:

a) Proiektuaren kalitatea eta interesa. Alderdi horiek baloratuko dira proiektuaren osotasunean, eta, era berean kontuan hartuko dira, zenbateraino sustatzen den kulturartekotasuna, alegia, kultur molde eta praktika ezberdinen arteko elkarriketa, bai genero-berdintasunaren integrazioa eta informazio eta komunikazio teknologien erabilera ere. Gehienez 20 puntu esleituko dira.

b) Proiektuaren gaitasun berritzailea. Kontuan hartuko da proiektuak esperimenez abiatzen diren eduki berri, original eta bereziak sortzen dituen. Gehienez 20 puntu esleituko dira.

c) Proiektuaren bideragarritasuna edo egingarritasuna. Kontuan hartuko dira aurrekontuaren egokitasuna, proiektuan erabilitako enpresa-baliabideak eta kalitate-prezio harremana aproposa izatea. Gehienez 10 puntu emango dira.

3.– Aurreko hiru irizpideen balorazioan gutxienez 35 puntu lortzen ez duten proiektuak baztertu egingo dira. Beste proiektuak baloratuak izango dira, bigarrenik, hurrengo irizpideen arabera:

a) Proposatutako diziplina arteko elkarrekintzaren sakontasuna eta kalitatea, agindu honen 11. artikuluan arabera. Bereziki kontuan hartuko da komunitatearen eta gizarte-bizikidetzako taldeen parte-hartzea sustatzea. Gehienez 30 puntu esleituko dira.

b) Eskatzailearen historiala edo ibilbidea. Kontuan hartuko da, bereziki, modalitate honen alorreko proiektu berritzaileekin izandako harremana. Gehienez 10 puntu esleituko dira.

c) Euskararen erabilera proiektuan. Gehienez 10 puntu esleituko dira. Irizpide hau ez da aplikatuko testu batean oinarriturik ez dauden proiektuetan; beraz, proiektu horien balorazio orokorra egiteko, formula hau erabiliko da:

Lortutako puntuazioa x 100 / 90

4.– Artikulu honetan ezarritako balorazio-baremoaren puntuazio totaletik gutxienez 65 puntu lortzen ez duten proiektuak baztertu egingo dira, eta ezingo dira sartu aukeratutako artean.

5.– Hautatutako proiektu bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, 2.3 artikuluan adierazitako diru-zuzkidura orokorra banatuko da onuradunek balorazio-irizpideei jarraiki loturiko puntuazioaren arabera, eta laguntzaren kopurua ez da inoiz izango eskatutakoa baino gehiago, ez hogeita hamabost mila (35.000) euro baino gehiago, ezta jardueraren kostuaren % 65 baino gehiago ere; gainera, diruz lagundutako proiektu-kopuruak eta horiei emandako diru-zenbatekoek beti bete beharko dute artikulua honen 1. idatzi-zatian xedatutakoa.

38. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

Modalitate honetako diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsona/entitate onuradunek, lagundutako jarduera bukatu eta hiru hileko epean, eta betiere 2014ko ekainaren 30a baino lehen, honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, bide presentzialetik edo elektronikotik:

a) Lagundutako jarduerari buruzko txosten zehatza, exekuzioa, betetze-maila eta ebaluazioa azaltzen dituenak.

b) Diruz lagundutako jardueraren behin betiko exekuzio-aurrekontua (gastuak eta diru-sarrerak), ahalik eta zehatzena, zinpeko aitorpen bidez, eskaerarekin onartutako aurrekontuaren formula-rioren arabera.

c) Diru-sarreraren atalean honako datu hauek, besteak beste, zehaztu beharko dira:

- Entitate onuradunaren behin betiko ekarpena.
- Beste administrazio edo entitateen ekarpenak, publikoenak eta pribatuenak. Entitate onuradunak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emandakoaz gain bestelako diru-laguntzarik jaso ezik, hori horrela dela adierazten duen zinpeko aitorpena ere aurkeztu beharko da.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emandako diru-laguntza.

Ez da onartuko aldaketa nabarmenik egitea behin betiko exekuzio-aurrekontuaren gastuko kontzeptuetan, onartutako aurrekontuarekiko, baldin eta tartean erabat justifikatutako arrazoirik ez badago eta, betiere, 36. artikuluan ezarritako mugak gainditzen ez badira. Halaber, ez da inola ere onartuko gehikuntzarik egitea proiektuaren kudeaketa, koordinazio, zuzendaritza edo idazkaritza teknikoko gastuetan, ez eta horien antzekoetan ere.

d) Diruz lagundutako programa edo jarduera gauzatzeak sorturiko gastuak justifikatzen dituzten dokumentu guztien zerrenda, euskadi.net gunean ezarritako ereduaren arabera. Ez dira tiketak onartuko eta Balio Erantsiaren Gaineko zergari dagokion zenbateko kengarria ezingo da egindako gastutzat hartu.

e) Emandako diru-laguntzaren adinako gastuak, gutxienez, justifikatzen dituzten egiaztagiriri eta fakturak. Hala ere, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak laginketa tekniken bidez aukeratuko ditu, artikulua honetako lehenengo paragrafoan ezarritako epearen barruan, aurrekontu osoa justifikatuko duten egiaztagiririak aurkeztu beharko dituzten pertsona onuradunak.

f) Katalogo, egitarau, iragarpen-kartel, argazki eta gainontzeko material grafiko edo soinu-zukoaren hizkuntz bertsio desberdinetako aleak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren babesa espresuki adierazita dutelarik.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan araututako diru-laguntzen programa Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 araudian ezarritako minimis arauaren mende dago (araudi hori Tratutuko 87. eta 88. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da, eta Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizia-

lean 2006-12-28an argitaratu zen: L379/5). Ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak beharrezkoak diren mekanismoak jarriko ditu abian bermatzeko enpresa jakin bati eman-dako laguntza osoa ez dela izango 200.000 eurotik gorakoa edozein alditako hiru urtealdi fiskaletan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraituz, eskatzailak emandako datuak eta eskabideetan agertzen direnak Eusko Jaurlaritzaren Ayudas y subven. Creación cultural izeneko fitxategian sartuko dira. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren titularrak eta 2006ko uztailaren 27ko Aginduan araututa dago. Fitxategiak laguntza emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari eman zaio horren berri, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita ditu. Fitxategiaren datuak, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak jarraiki, datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez baliatu ahalko da eskatzailea, horretarako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Donostia kalea; 01010 Vitoria-Gasteiz.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak erkatu ahal izango ditu adierazitako datuak eta berriazko egiaztapenak egin ahal izango ditu laguntzak behar bezala esleitzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 14a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.